

Topalekua

78 zk. 2013ko otsaila

febrero 2013 - n.º 78

pág. 1: *Gizarte Kontseiluaren osoko bilkurak Errektorearen proposamena onartu du, Lore Bilbao UPV/EHU-ko gerente izendatzeko*

pág. 2: *Enpresa berritzaileen kopuruak behera egin badu ere, I+G-n egindako ahalegina handitu egin da*

pág. 3: *UPV/EHU zazpigarren unibertsitatea da ikerketa-ekoizpenaren zerrendan, eta lehena bikaintasuneranzko aipamendun doktoregoetan*

pág. 4: *Euskadi lehena da lan-asebetetzea, ordainsariak eta enplegu kualifikatua neurtzeko zerrendetan*

IKASKETA OSAGARRIEN BEDERATZI IKASTAROREN MATRIKULA PREZIOAK ONARTU DIRA

GIZARTE KONTSEILUAREN OSOKO BILKURAK ERREKTOREAREN PROPOSAMENA ONARTU DU, LORE BILBAO UPV/EHU-KO GERENTE IZENDATZEKO

UPV/EHUko Gizarte Kontseiluaren osoko bilkurak gaur onartu du Iñaki Goirizelaia errektoreak egin zuen proposamena, Lore Bilbao Artetxe Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko gerente izendatzeko.

Lore Bilbao Dimakoa da (bizkaitarra), eta 47 urte ditu. 2009ko apiriletik, Bizkaiko Campuseko gerenteordea izan da; beraz, bere ibilbide profesionalaren zatirik handiena UPV/EHUn gartu du.

Ikasketa osagarriak

Oso bilkuraren bilera berean, Kontseiluak ikasketa osagarri batzuen matrikula-prezioak onartu ditu. Hona-

ko hauek dira ikasketa osagarri horiek: “Material nanoegituratuen hastapenak”, “R Software libreaz eredu lineal orokorrak biologian duen erabilaren hastapenak”, “Lan-bilaketa aktiboa”, “Emozioen Maneiu Adimenduna”, “Estresaren maneiu eta lan burutzapena”, “Gizarte-trebetasunak”, “Talde-lana eta motibazioa”, “Aberaste pertsonala: gogamenaren moldeak” eta “Ikasketa-teknikak eta adimen-lana”.

Azkenik, aurrekontu-aldaketa batzuk onetsi ondoren, osoko bilkurak ordainsari osagarri batzuk berriro esleitzea onartu du, bai eta gai berari buruzko epai judicial batzuk betearaztea ere.

ENPRESA BERRITZAILEEN KOPURUAK BEHERA EGIN BADU ERE, I+G-N EGINDAKO AHALEGINA HANDITU EGIN DA

I+G-n inbertitzen duten enpresa berritzaileen ehunekoak gora egin du, eta Espainiako estatuan % 40,39raino iritsi da. Hala eta guztiz ere, enpresa berritzaileen kopurua gero eta txikiagoa da, eta horren froga da 2006tik 2011ra % 44,9 txikiagoa zela. *Datos y Cifras del Sistema Universitario Español* (Espainiako estatuko unibertsitate-sistemaren datuak eta zifrak) txostenak, Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioak duela gutxi argitaratuak, jakinarazi duenaren arabera, azken ekitaldian bereziki areagotu zen atzerapausoa, % 15,1ekoa izan baitzen. Txosten berean jakinarazi dute berrikuntza egindako gastua guztira aurreko urtekoa baino txikiagoa izan zela: 2011n 14.755,8 milioi inbertitu ziren; zehazki, 2010ean baino % 8,8 gutxiago.

Txostenak aipatzen du aldi berean berrikuntza-intentsitatea % 0,91raino jaitsi zela, eta produktu berriak eta hobetuak egiten dituzten enpresen ehunekoak ere okerrera egin zuela: 2011n % 12,09koa izan zen; eta, 2010ean, ordea, % 14,95ekoa.


Euskadi, liderra I+G-n

Txostenaren ikerketa-atalean nabarmendu dute 2011n EAE izan zela I+Gn gehien inbertitu zuen autonomia erkidegoa: BPGaren % 2,1eko inbertsioa egin zuen. Hortaz, estatuan inbertitutako batez bestekoa (% 1,33) soberan gainditu zen EAEn. Honako erkidego hauetan egindako inbertsioek ere Espainiako estatuko batez bestekoa gainditu zuten: Nafarroan (% 2,05), Madrilan (% 1,99) eta Katalunian (% 1,55). Inbertsio txikiagoa egin zuten erkidegoen artean honako hauek ditugu: Balearak (% 0,36), Kanariak (% 0,58) eta Gaztela-Mantxa (% 0,68). 2011n, I+Gn egindako barneko gastua 14.184,3 milioi izan zen, hau da, 2010ean baino % 2,7 txikiagoa. Herri Administrazioak 6.308,5 milioi eman zuen (% 44,5); enpresek 6.285,3 milioi (% 44,3); eta goi mailako irakaskuntzak % 4.

I+Gn aritzen ziren langilei dagokienez, Espainian 215.079 pertsona izan ziren, lanaldi osoko baliokidea aintzat hartuta. Ikertzaile-kopurua 130.235 izan zen, eta ikertzaile guztien % 38,6 emakume ziren. Goi mailako irakaskuntzan, I+Gko langileak guztira 80.900 izan ziren (langile guztien % 37,6) eta ikertzaile-kopurua 62.185 izan zen (% 47,7). Euskal Autonomia Erkidegoan I+Gn aritzen ziren lanaldi osoko langileak 17.970 pertsona ziren, eta ikertzaileak 11.212 (lanaldi osoko baliokidea).

Barneko gastu guztien banaketa eskualdeko BPGaren aldean, autonomia erkidegoen arabera.


2011. urtea



Iturria: 2011ko I+Gko jardueri buruzko estatistika. Behin betiko emaitzak. **Estatistika Institutu Nazionala**

Goi mailako irakaskuntza I+Gn aritzen ziren langileak guztira, autonomia erkidegoen arabera (lanaldi osoko baliokideak).

2011. urtea



Unibertsitate-ikasleen kopurua igo egin da

Unibertsitate-sistemaren bilakaerari eskainitako atalean, txostenean azpimarratu dute graduko ikasleak gutxi gorabehera 1,5 milioi izango direla ikasturte honetan. Aurten, % 1,7 egin du gora kopuruak, eta horri gehitzen zaio aurreko ikasturtearen % 3,1eko gorakada. 2012-2013 ikasturtean master-ikasketak egiten ari diren ikasleen kopurua ere handiagoa da, zehazki, 113.061 dira; aurreko ikasturtea baino % 7,8 gehiago.

Ministerioaren txostenak ere honako hauek nabarmendu ditu:

- **Tasak:** lehenengoz, graduko titulazioetan matrikulatutako kreditu bakoitzaren batez besteko prezioa 17,9 eurokoa izan da; horrek esan nahi du, aurreko ikasturtearen prezioaren aldean, batez besteko igoera % 16,7koa izan dela. Hala eta guztiz ere, autonomia erkidego guztiek ez dute prezio-igoera bera ezarri.
- **Emakumeen presentzia:** Unibertsitate-ikasketa guztietan emakume gehiago dira gizonak baino. Unibertsitate-tituludun guztien artean handiagoa da emakumeen proportzioa; izan ere, batez bestekoa % 59,1eraino iritsi da.
- **Batez besteko nota:** emakumeek unibertsitate-espedituetan ere batez besteko nota hobea lortzen dute: zehazki, 7,04; eta gizonak 6,94.
- **Arrakasta-indizea:** 2010-2011 ikasturtean, graduko ikasleek matrikulatutako kredituen % 69,7 gainditu zuten.
- **Atzerriko ikasleak:** graduko-ikasketak eta master-ikasketak egiten ari diren ikasle guztien % 4,6 atzerriko ikasle dira.
- **Bekak:** ikasturte honetan 1.235,4 milioi euro esleitu zaio goi mailako ikasketak egiteko beken eta diru-laguntzen atalari. Aitzitik, 2010-2011 ikasturtean 1.117,1 euro esleitu zen horretarako; hortaz, % 10,6ko igoera egon da. Beka orokorrak eta mugikortasun-bekak aztertzen badira, onuradun guztiak 305.454 izan dira; beraz, aurreko ikasturtean baino % 14,2 gehiago.
- **Lizentziadunen (ez doktoreen) langabezia-tasa** % 5,4koa izatetik 12,8 izatera aldatu zen 2007tik 2011ra. Doktoretza ikasi duten biztanleak aintzat hartzen badira, langabezia-tasaren igoera askoz txikiagoa izan da; zehazki, % 2,7tik % 3,9ra.

UPV/EHU ZAZPIGARREN UNIBERTSITATEA DA IKERKETA-EKOIZPENAREN ZERRENDAN, ETA LEHENA BIKANTASUNERANZKO AIPAMENDUN DOKTOREGOETAN

UPV/EHUK zazpi garren postua erdietsi du *Ranking 2011 de Producción y Productividad en Investigación* deritzon ikerketa-ekoizpenari eta –produktibitateari buruzko sailkapenean. *Ranking* hori Buela-Casal, Bermúdez, Sierra, Quedo-Blasco, Castro eta Guillén-Riquelme irakasleek egin dute azken hiru urteotan. Horretarako, askotariko adierazleak erabat analizatu edo aztertu dituzte. Txosten berean Euskal Herriko Unibertsitatea lehena da “Bikaintasuneranzko aipamendun doktoregoen zerrendan”.

Espainiako estatuko unibertsitate publikoen ikerketaren *rankingean* zazpi adierazle ebaluatzen dituzte: ISI artikulua, ikerketa-tarteak, I+G proiektuak, doktorego-tesiak, unibertsitate-irakasleak trebatzeko bekak, bikaintasuneranzko aipamendun doktoregoak eta patenteak. Eta adierazleak bi ikuspegiatik aztertzen dituzte: unibertsitateen ekoizpen globala eta produktibitatea (ekoizpena zati unibertsitate bakoitzeko irakasle-fun-

tzionarioen kopurua). Horren helburua unibertsitate guztiak maila berean jartzea da, haien tamainaren eragina horrela ezabatuta.

Ranking globalean ondorioztatu da honako hauek direla ekoizpen global handiena duten hamar unibertsitateak: Bartzelonako Unibertsitatea, Madrilgo Unibertsitate Konplutensea, Granadako Unibertsitatea, Bartzelonako Unibertsitate Autonomoa, Valentziako Unibertsitatea, Kataluniako Unibertsitate Politeknikoa, Euskal Herriko Unibertsitatea, Valentziako Unibertsitate Politeknikoa, Madrilgo Unibertsitate Autonomoa eta Sevillako Unibertsitatea. Eta honako hauek dira unibertsitate produktiboak: Pompeu Fabra, Pablo de Olavide, Rovira i Virgili, Miguel Hernández, Bartzelonako Unibertsitate Autonomoa, Valentziako Unibertsitate Politeknikoa, Kataluniako Unibertsitate Politeknikoa, Bartzelonako Unibertsitatea, Karlos III.a eta Madrilgo Unibertsitate Autonomoa.

4. taula

Espainiako estatuko unibertsitate publikoen ikerketa arloko ekoizpenaren eta produktibitatearen sailkapen globala

Ekoizpena guztira			Produktibitatea guztira		
Kokapena	Unibertsitatea	Puntuak	Kokapena	Unibertsitatea	Puntuak
1	Bartzelonako Unibertsitatea	100	1	Pompeu Fabra	100
2	Madrilgo Unibertsitate Konplutensea	96,26	2	Pablo de Olavide	88,34
3	Granadako Unibertsitatea	76,45	3	Rovira i Virgili	76,45
4	Bartzelonako Unibertsitate Autonomoa	73,32	4	Miguel Hernández	75,90
5	Valentziako Unibertsitatea	65,76	5	Bartzelonako Unibertsitate Autonomoa	75,03
6	Kataluniako Unibertsitate Politeknikoa	58,43	6	Valentziako Unibertsitate Politeknikoa	71,28
7	UPV/EHU	55,29	7	Kataluniako Unibertsitate Politeknikoa	65,67
8	Valentziako Unibertsitate Politeknikoa	54,85	8	Bartzelonako Unibertsitatea	62,90
9	Madrilgo Unibertsitate Autonomoa	54,43	9	Karlos III.a Unibertsitatea	62,30
10	Sevillako Unibertsitatea	52,11	10	Madrilgo Unibertsitate Autonomoa	56,99

Bikaintasuneranzko aipamendun doktoregoen arabeko sailkapena

Ekoizpena guztira		Unibertsitatea	Produktibitatea guztira (produktibitatea/irakasleko)	
Kokapena	Puntuak		Kokapena	Puntuak
1	100	UPV/EHU	8	40,51
2	93,55	Bartzelonako Unibertsitatea	12	29,94
3	83,57	Bartzelonako Unibertsitate Autonomoa	5	44,81
4	80,65	Kataluniako Unibertsitate Politeknikoa	4	51,07
5	67,74	Zaragozako Unibertsitatea	11	30,96
5	67,74	Madrilgo Unibertsitate Politeknikoa	16	26,42
7	61,29	Granadako Unibertsitatea	23	20,59
8	58,06	Sevillako Unibertsitatea	25	20,15
8	58,06	Valentziako Unibertsitatea	27	20,11
10	54,84	Madrilgo Unibertsitate Konplutensea	38	11,70
11	48,39	Santiagoko Unibertsitatea	19	24,08
12	41,94	Vigoko Unibertsitatea	9	38,86
12	41,94	Valentziako Unibertsitate Politeknikoa	13	29,63
14	38,81	Madrilgo Unibertsitate Autonomoa	26	20,13
15	35,48	Karlos III.a Unibertsitatea	6	42,88
16	29,03	Oviedoko Unibertsitatea	32	14,31
17	25,81	Pompeu Fabra	2	74,69
17	25,81	Rovira i Virgili	3	54,40
17	25,81	Alcala de Henaresko Unibertsitatea	14	27,20
17	25,81	Murtziako Unibertsitatea	31	16,17
21	22,58	Pablo de Olavide	1	100
22	19,35	Balear Uharteetako Unibertsitatea	10	37,67
22	19,35	Valladolideko Unibertsitatea	37	11,88
24	16,13	Lleidako Unibertsitatea	7	42,07

Bikaintasuneranzko aipamendun doktoregoen arabeko sailkapena


Ekoizpena guztira		Unibertsitatea	Produktibitatea guztira (produktibitatea/irakasleko)	
Kokapena	Puntuak		Kokapena	Puntuak
24	16,13	Almeriako Unibertsitatea	15	26,94
24	16,13	Kantabriako Unibertsitatea	22	21,12
24	16,13	Coruñako Unibertsitatea	29	19,32
24	16,13	Salamancako Unibertsitatea	42	10,51
29	12,90	Leongo Unibertsitatea	30	17,34
29	12,90	Gaztela-Mantxako Unibertsitatea	33	13,82
29	12,90	Alacanteko Unibertsitatea	34	13,28
29	12,90	UHUN	40	11,43
29	12,90	Malagako Unibertsitatea	45	8,16
34	9,68	Huelvako Unibertsitatea	20	22,89
34	9,68	Gironako Unibertsitatea	28	19,53
34	9,68	Juan Carlos Erregea Unibertsitatea	36	12,87
34	9,68	Cadizko Unibertsitatea	41	11,16
34	9,68	Kanaria Handiko Las Palmasko Unib.	43	10,38
34	9,68	Kordobako Unibertsitatea	44	9,87
34	9,68	La Lagunako Unibertsitatea	46	6,27
41	6,45	Burgosko Unibertsitatea	17	24,90
41	6,45	Cartagenako Unibertsitate Politeknikoa	18	24,75
41	6,45	Errioxako Unibertsitatea	21	22,77
41	6,45	Miguel Hernández	24	20,37
41	6,45	Nafarroako Unibertsitate Publikoa	35	13,26
41	6,45	Jaume I.a Unibertsitatea	39	11,51
47	3,23	Jaengo Unibertsitatea	47	5,38
47	3,23	Extremadurako Unibertsitatea	48	3,22

EUSKADI LEHENA DA LAN-ASEBETETZEA, ORDAINSARIAK ETA ENPLEGU KUALIFIKATUA NEURTZEKO ZERRENDETAN

Lan Aukera eta Lan Asebetetze Monitor Adecco txostenak azaldu duenaren arabera, langileak asebetetze gaitasunaz euren lanarekin honako erkidego hauetan: Nafarroako Foru Erkidegoan (6,7 puntu) eta Euskal Autonomia Erkidegoan (6,6 puntu). Lan-asebetetzeak erlazio zuzena dauka ordainsariarekin, eta Euskadi lehena da adierazle horri dagokionez: 1.937 euro gordin hileko langileko. Lan kualifikatuaren ehunekoari bagagozkio, lan egiten dutenen % 37,6raino iristen da gure erkidegoan; eta kopuru hori Madrilgo erkidegoak soilik gainditu du.


LAN AUKERA ETA LAN ASEBETETZE MONITOR ADECCO

Balizko lan-asebetetzea. Batez besteko puntuazioa



Iturria: Barceló & Asociados, INEren eta Lan Ministerioaren datuak oinarrituta

LAN KUALIFIKATUEN EHUNEKOA (1) 4 hiruhilekoen batez besteko mugikorra



(1) Zuzendarien, teknikarien, zientzialarien eta profesionalen lanpostuak

Iturria: Barceló & Asociados, INEren datuetan oinarrituta

Monitor Adecco ikerlana egiteko, sei hilabete behin lanari buruzko bost arlo nagusi aztertzen dira: ordainsariak, lan-segurtasuna, laneko eta garapen profesionaleko aukerak, familia eta lana bateratzea eta lan-gatazkak. Madrilgo erkidegoa ere (6,2 puntu) oso hurbil dago zerrendan. Aitzitik, emaitza txarrenak Andaluzian (4,5 puntu), Asturiasen (4,3) eta Kanarietan (3,9) jaso dira.

Laneko eta garapen profesionaleko aukeren arloan, emaitzarik onenak honako erkidego hauetan jaso dira: Madrilgo Erkidegoan (7,5), EAEn (7,2) eta Errioxan (6,9). Eta kontrako egoeran daude honako hauek: Kanariak (2,0 puntu), Extremadura (1,8) eta Andaluzia (1,5).


Emaitza horiek oso lotuta daude lurralde bakoitzeko lan kualifikatuaren lanpostuen ehunekoari (gerenteak, profesionalak, teknikariak eta laguntza emateko profesionalak). Arlo horretan Madrilgo erkidegoa nabarmentzen da, % 46,9 pertsonak lan kualifikatua duelako; ondoren, EAE (% 37,6) eta Asturias (% 33,6) ditugu. Horiek dira estatuko batez bestekoa (% 32,2) gainditzen duten hiru erkidego bakarrak.

Euskadi, ordainsari-rankingaren buruan

Ordainsaria da langileen asebetetzean eragin handiena duten faktoreetako bat; eta adierazle horren puntuaziorik altuena Euskadin (8,3) jaso da. Atzetik, honako hauek datozen: Madril (7,2), Nafarroa (6,7) eta Katalunia (6 puntu). Estatuko batez besteko ordainsaria 1.640 eurokoa da hileko; eta, EAEn, ordea, 1.937 eurokoa (% 18 handiagoa da estatuko batez bestekoa baino). Hurrengoak Madril (1.884 euro) eta Katalunia (1.756 euro) dira.

ORDAINSARI NOMINAL ARRUNTAK Datuak hileko euro gordinetan.

4 hiruhileko batez besteko mugikorra



Iturria: Barceló & Asociados, INEren datuetan oinarrituta